



Izaskun Urien Osalaneko zuzendari nagusia eta Juan Mari Aburto Enplegu eta Gizarte Politiken sailburua, gidaliburuaren aurkezpen ekitaldian. NUEVA EUROPA

LAN EREMUAN MENPEKOTASUNEN PREBENTZIOA JORRATZEKO GIDA

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Osalanek langileen segurtasuna eta bizi kalitatea eremu guztietan bermatzea du helburu.

Zentzu honetan, lan eremuan garrantzi handikoak dira menpekotasuneko arazoak, langileen osasuna eta bizitza jokoan jartzen dituelako. Menpekotasuna pairatzen duen pertsonaren, bere lan-

kideen eta enpresaren arazoa da hau. Lan eremuetan atxikimenduei aurre egiteko eta aurrea hartzeko Osalanek *Enpresetan droga-menpekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua* argitaratu du.

Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko ezinbestekoa da lan eremuan prebentzioaren kultura zabaltzea. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak burutzen du lan hau, Osalanen bitar-

tez. Atxikimenduek eta droga-menpekotasunek, eremu pertsonalean arazo larriak sortu eta lan eremuan arriskuak sorrarazten dituzte. Pertsonari eta haren inguru hurbilari eragindako kalteaz gain, kontsumo desegokiaren ondorioak neurgarriak dira lan eremuan: lan huts egite gehiago, baja kopuru handiagoa, lan istripu gehiago eta horrek eragin zuzena du enpresaren produktibitatean, nabarmen jaisten baita.

Droga-menpekotasunaren fe-

nomenoak lan eremuan sortutako arazoei aurre egiteko langileei eta enpreseei laguntza eskaintzeko asmoz, Osalanek *Enpresetan droga-menpekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua* argitaratu du. Enpresek atxikimenduen arazoei aurrea hartu eta hauei aurre egiteko bidaia orria da hau.

«Langileen artean droga-menpekotasunaren arazoei jarraipenez aurre egiteko beharrezko tresnak eskaintzeko dihardugu. Osasunaren eta ongizatearen arazoen agerpena prebenitzea da helburua, baita etorkizuneko arazoak modu goiztiar eta pertsonalizatuan detektatzea, menpekotasuna pairatzen duten langileei tratamendua ematea eta konfidentzialtasuna bermatzea ere. Zentzu honetan, lan eremuan atxikimenduen arriskuen prebentzioa berme osoz garatzeko lege-alderdi guztiak azaltzen ditu gidak», nabarmendu zuen Juan Mari Aburto Enplegu eta Gizarte Politiken sailburuak gidaren aurkezpen ekitaldian.

Behin menpekotasuna dagoela ohartuta, nola jokatu ere jasotzen da gidaliburuan baina, menpekotasunik ez duten pertsonak tentaldian ez erortzea da gidaren helburua. Menpekotasunaren eragin ezkorra kontutan hartzea funtsezkoa da enpresa bakoitzak, bere prebentzio plana elaboratzeko orduan. Sustantzien kontsumoan oinarritutako menpekotasunak edo kontsumorik gabeko menpekotasun jokabideak ekiditeko, gutxitzeko eta finean, lan eremutik kanpo uzteko prebentzio ekimen kolektiboak indartu eta martxan jarri behar dira.

Zentzu honetan, bigarren eta hirugarren mailako prebentzioarekin batera, hau da, dagoeneko menpekotasun arazoren bat garatu duen pertsonari zuzendutako neurriez gain, indarra, esfortzua, lehen mailako eta oinarritutako prebentziora zuzendu behar da; hau da, arazoa agertu ez dadin



Osalanek argitaratu duen gidaliburua. PEDRO AGUDO

lan egin behar da. Hori horrela izanik, informazioaren, sentsibilizazioaren, kontsumo ereduen eta arriskuen ebaluazioaren bitartez, menpekotasunik garatu ez duen langileengan kontzientzia sortuz, kontsumo edota menpekotasun jokamolderik ez garatzeko lan ingurune egokia eraikitzea gomendatzen da.

Alkoholak, tabakoak, kannabis bezalako drogek, jokoa bezalako substantzia gabeko menpekotasunek, edota azaleratzen ari diren gaitz psikosozialek, lanarekiko menpekotasunak edo teknologia berriekiko menpekotasunak, besteak beste, hauen menpeko pertsonengan eragina zuzena dute, baita hauen lanpostuengan ere: kontsumo ez egokia duen pertsona baten absentismo maila hiru edo lau bider handiagoa da; lan istripuen maiztasuna hiru-koiztu egiten da drogen eraginpean dauden pertsonetan, eta bajak edo gaixotasunengatik lan egu-netan egindako huts egite maila ere igo egiten da.

Azpiarragarria da lanak menpekotasun jokamoldea gartua duen pertsonari eskaintzen dion babes. Gure enpresetan zaindu eta sendotu behar dugun balorea da hau. Izan ere, lanak auto-errealizazioa, ekonomia egonkortasuna eta segurtasuna eskaintzen ditu, eta horiek garrantzitsuak dira, menpekotasunaren aurrean indartsu bilakatzeko, funtsezkoak.



Menpekotasunari aurre egin

Osasuna eta Segurtasuna Lanean

“Enpresetan Droga-menpekotasunen prebentziorako planak ezartzeko gidaliburua” eskuragarri hemen: osalan.euskadi.net

